BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

"EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IRAKASLEEI 2024-2025 IKASTURTEAN PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK EMATEA IRALE PROGRAMAREN BARRUAN" IZENEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren 17/2023 legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema mailaka eraldatzeko oinarriak arautzea, euskal gizartearen eskakizunetara egokitzeko.

Euskal Hezkuntza Sistemaren oinarrizko balio gisa euskara eta euskal kultura ardatz hartzen dituen esparru eleaniztun eta kultura-anitza aipatzen da, besteak beste. Oinarrizko balio honen garapen gisa, IV. tituluak, hizkuntzek Euskal Hezkuntza Sisteman duten tokia arautzen du. III. kapituluak irakasleen eta irakasle ez diren langileen hizkuntza-gaikuntza indartzeko modua aztertzen du. Irakasleei dagokienez, haien hizkuntza-gaikuntza hobetzeko neurri batzuk proposatzen dira, bai eta atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako duten gaikuntza hobetzekoak ere.

Honela dio "Irakasleen hizkuntza-gaikuntza hobetzeko prestakuntza"-ri eskainitako artikuluak:

> "71. artikulua.– Irakasleen hizkuntza-gaikuntza hobetzeko prestakuntza.
>
> 1.– Hezkuntza Administrazioak irakasleak prestatzeko eta trebatzeko plan bat egingo du, curriculumeko hizkuntzetan duten hizkuntza-konpetentzia hobetzeko.
>
> 2.– Irakasleek euskarako C2 maila eta ingeles-irakasleek ingeleseko C1 maila lortzeko prestakuntza sustatuko da.
>
> 3.– Prestakuntza-planak curriculum-hizkuntzen ezagutza ziurtatuko du, eta euskararekiko eta haren erabilerarekiko konpromisoa sustatuko du.
>
> 4.– Irakasleak euskara-konpetentzietan eta atzerriko hizkuntza batean –ahal dela, ingelesa– prestatzeak kalitatezko irakaskuntzaren beharrei erantzungo die.
>
> 72. artikulua.– Irakasleen prestakuntza hizkuntzen irakaskuntzan.
>
> 1.– Hezkuntza Administrazioak berariazko prestakuntza eskainiko du metodologiari, aplikazioari, curriculum-diseinuari eta diziplinarteko lanari dagokienez, hizkuntza-proiektuak sistema eleaniztun batean gauzatzeko, euskara ardatz nagusitzat hartuta.
>
> 2.– Atzerritar jatorriko ikasleei ikastetxeetan eta ikasgeletan abegi egiteko prestakuntza-programak garatuko ditu Hezkuntza Administrazioak, eta, aldi berean, ikasgeletan integratuko ditu haien hizkuntzak eta kulturak, errespetutik abiatuta."

Euskal Autonomia Erkidegoko 17/2023 legearekin batera, maiatzaren 30eko 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 dekretuek, hurrenez hurren, Haur Hezkuntzari, Batxilergoari eta Oinarrizko Hezkuntzari eragiten diotenek, curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzea dute helburu. Funtsezko konpetentziak eskuratuz ikasleek etapa bakoitzaren amaierarako iritsi beharko lituzketen lorpenak zehazten dira bertan, irteera-profila, funtsezko konpetentziak eta espezifikoak, ebaluazio-irizpideak edo oinarrizko jakintzak zehazten dira dekretuotan.

Curriculumaren oinarrien eta ikasleen konpetentzien arloarekin batera, Pedagogia eta Kudeaketa-autonomiari propio eskaintzen zaio kapitulu bat. 77/2023 dekretuko 20. artikuluan, "Irakasleen konpetentzia-profila, prestakuntza, koordinazioa eta ebaluazioa" zehazten direnean, irakasleen prestakuntzaren helburu nagusiak finkatzen dira. Irakasleek beren funtzioen berezko erantzukizunak, hau da, ikasleen irteera-profilari lotutako konpetentziak lortzen laguntzearekin loturiko erantzukizunak betetzeko izan beharreko konpetentzia-profil egokia zehazten da.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko dekretuetan "Hizkuntza-esparruari" eskainitako artikuluetan, hezkuntza-sistemaren lehen helburuetako bat ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-konpetentzia garatzea dela zehazten da, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren ikuspegitik, euskararen erabileran sakonduta. Helburu horiek lortzeko bitartekoen artean, 77/2023 dekretuko 8. artikuluan esaterako, irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egin beharra aipatzen da, hizkuntzen esparruan hizkuntza- eta metodologia-gaitasunak hobetzeko.

Hizkuntza eta kulturaren arteko harremanean, bestela esanda, eleaniztasunaren eta kultur-aniztasunaren binomioan, bata bestearen osagarri dira. Gauzak horrela, kulturaren transmisioa hertsiki loturik dago hizkuntza konpetentziarekin. Honakoa biltzen du Euskal Autonomia Erkidegoko 17/2023 legeak hezkuntza-sistemaren balioen artean:

> "Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean, baita beste hizkuntzekin ere. Gainera, hizkuntza- eta eleaniztasun-konpetentzia garatzeak gainerako funtsezko konpetentziak garatzera bultzatzen du, eta, beraz, beste arlo batzuen zerbitzura dago konpetentzia hori."

Antzeko bidetik, 77/2023 dekretuak ere, 5. artikuluan, curriculumean euskal kulturaren eta hizkuntzaren dimentsio espezifikoa txertatzearen beharra aipatzen du Euskadiko hezkuntza-sistemaren printzipioak zehazterakoan. Funtsezko konpetentziak alderdi guztietatik garatzearen garrantzia azpimarratzen du, kultura eta hizkuntzaren arteko kate-lana agerian utzita.

Ildo horretatik, curriculumetan ezartzen da zeintzuk diren ikasleek oinarrizko hezkuntzan landu behar dituzten oinarrizko funtsezko-konpetentziak, eta horien artean dago hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia. Bi hizkuntza ofizialen erabileran oreka eta berdintasuna bilatzea da hezkuntza-sistemaren xedeetako bat, eta euskarak gizarte-erabilera desorekatua eta ahula duenez gaztelaniaren aldean, euskara hezkuntza-komunitatearen jarduera guztietan adierazpide normala izan dadin bultzatu eta bermatu behar du hezkuntza-eskumenak dituen sailak. Hortaz, Ikastetxeek euskara eta gaztelania landuko dituzte Oinarrizko Hezkuntzan, ikasleek eskuratu ahal izan ditzaten bi hizkuntza horiek ulertzeko eta ahoz eta idatziz adierazteko trebetasunak, eta biak hala biak erabil daitezen eremu pertsonalean, sozialean eta akademikoan.

Helburu hori lortzeko, berriz, hizkuntzak modu integratuan eta integralean landu beharra dago, hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landuz eta denek berdina dutena partekatuz. Hizkuntzen trataera integralean, irakasle guztiek –hizkuntzetakoak direnek nahiz ez direnek– elkarrekin aritu behar dute komunikaziorako konpetentzia garatzen, eta horrek ikastetxeko irakasle guztien inplikazioa eskatzen du. Horrek, jakina, badu eragina irakasleen prestakuntzarako ereduetan; izan ere, alderdi indibidualenetan oinarritutako prestakuntza-eredua baztertu egin behar da, eta, horren ordez, eskoletan ardaztutako prestakuntza-ereduak bultzatu, lekuan lekuko ikastetxeetako premietara egokitutako proiektuen bitartez, eta, horretan, lekuan lekuko proiektu eta planak hartu behar dira

kontuan: hobekuntza-planak, esku-hartze globaleko proiektuak, hezkidetza-proiektuak...; eta hezkuntza-komunitateek bizi dituzten errealitate askotarikoak ere kontuan hartu behar dira: ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideentzako prestakuntza-proiektuak, esaterako.

Irakasleen prestakuntzari eta eguneratzeari dagokienez, prestakuntza teoriko-praktikoko modalitatea balio handikotzat jotzen denez gero, halako saioak antolatzen dira, bai ikastetxeetan, bai prestakuntza-zentroetan, hezkuntza-arloko aditu eta eragileekin batera; izan ere, prestakuntza-arloko eragileekin talde-lanean eta elkarlanean aritzea guztiz beharrezkoa da, etengabeko prestakuntzarekin lotutako proposamenek arrakasta izango badute.

IRALE programak bat egiten du hausnarketa horiekin, eta ahalegin berezia egin du azken urteotan prestakuntza-jarduerak ikastetxeetara eramateko, hezkuntza-arloko eragileekin lankidetzan. Prestakuntza-arloan eragile izanik, bete-betean lotzen zaie maiatzaren 30eko, 75/2023, 76/2023 eta 77/2023 dekretuei. IRALE programaren eskaintza nagusia goi-mailako ikastaroak dira, bai irakastorduz kanpokoak, bai irakastordu barnekoak. Nagusiki, ikastaro horiek izan dira programaren berrikuntza nagusia, eta, neurri batean, ikastetxeetan egiten diren berrikuntza-proiektuei eta bertako hezkuntza-eredu pedagogikoei, nahiz hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuei erantzuteko baliagarri izan daitezke. Beraz, IRALE programaren helburuak, neurri handi batean, horretara bideratzen dira.

Prestakuntza honen gauzapena kontratazio bidez gauzatu zen 2022an, eta formula horren jarraipena da aurtengo plegua ere.

Beraz, kontratazio-prozesu honen helburua da IRALEk ikastetxeetan eskaini izan duen irakastorduz kanpoko goi-mailako ikastaroen programari jarraipena ematea.

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1. Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleei 2024-2025 ikasturtean prestakuntza-ikastaroak ematea IRALE programaren barruan.

1.2. Enpresek eta entitateek lote independenteen arabera egingo dituzte eskaintzak, eta proposamen berezituak aurkeztuko dituzte lote bakoitzerako. Enpresen eta entitateen ekonomi eskaintzak ezingo dira izan lote bakoitzerako ezarritako gehienezko lizitazio-kostua baino altuagoak.

1.3. <u>7 ikastaro</u> eskaini nahi dira, **<u>15 lotetan</u>** banatuta (lote bat ikastaro eta lurralde historiko bakoitzeko). Hona hemen prestakuntza-eskaintza:

1. lotea: Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Araba (20 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H11 AR	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Araba	20

2. lotea: Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Bizkaia. (20 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H11 BI	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Bizkaia	20

3. lotea: Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Gipuzkoa. (20 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H11 GI	Hizkuntzaren zuzentasuna eta egokitasuna: Euskaltzaindiaren batasun-arauak. Gipuzkoa	20

4. lotea: Ipuingintza eta Kontalaritza. EAE. (10 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H4-EAE	Ipuingintza eta Kontalaritza. EAE	10

5. lotea: Euskal kantak eta jolasak. EAE. (10 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H5-EAE	Euskal kantak eta jolasak. EAE	10

6. lotea: Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Araba (14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H12-AR	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Araba	14

7. lotea: Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Bizkaia (14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H12-BI	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Bizkaia	14

8. lotea: Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Gipuzkoa(14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
H12-GI	Euskararen erabilera indartzea: ikasleen euskararen erabilera indartzeko oinarriak eta tresnak ikasgelarako eta ikasgelaz kanporako. Gipuzkoa	14

9. lotea: Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Araba. (14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I1-AR	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Araba	14

10. lotea: Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Bizkaia. (14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I1-BI	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Bizkaia	14

11. lotea: Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Gipuzkoa. (14 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I1-GI	Ikasleen gaitasun komunikatiboa helburu izanik, euskararen irakasbideak hobetzeko metodologia-ikastaroa. Gipuzkoa	14

12. lotea: Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altzotik. EAE. (30 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I7-EAE	Ahozko hizkuntzaren lanketa Hizkuntza Normalizazioaren altzotik. EAE	30

13. lotea: Hizkuntza-trataera integrala garatzen. Araba (18 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I8-AR	Arloetan (zientzietan, matematiketan…) ahozko komunikazioa lantzeko oinarriak. Araba	18

14. lotea: Hizkuntza-trataera integrala garatzen. Bizkaia (18 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I8-BI	Arloetan (zientzietan, matematiketan…) ahozko komunikazioa lantzeko oinarriak. Bizkaia	18

15. lotea: Hizkuntza-trataera integrala garatzen. Gipuzkoa (18 ordu)

Kodea	Izena	Orduak
I8-GI	Arloetan (zientzietan, matematiketan…) ahozko komunikazioa lantzeko oinarriak. Gipuzkoa	18

2. MODALITATEA, TOKIAK, DATAK ETA HIZKUNTZA

Prestakuntza-eskaintza modu presentzialean emango da 2024ko irailaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean, baina, betiere, lote bakoitzerako ezarritako urtearen barruan.

Ikastaroak bakoitzaren deskribapen-fitxan adierazitako lurralde historikoan emango dira, prestakuntza-ekintzan parte hartzen dutenek lan egiten duten ikastetxeetan.

Ikastaro guztiak euskaraz emango dira.

Behin loteak esleituta, ikastaroak noiz hasi eta bukatuko diren adostuko da, baita zein herritan eta lekutan emango diren ere, betiere lote bakoitza emateko ezarritako urtearen barruan. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ikastaroen datak eta emango diren lekuak aldatu ahal izango ditu antolaketa-arrazoiengatik.

Ikastaroen osagarri, ikastaroa eman duten irakasleek txosten edo memoria bat egin eta aurkeztuko dute egindako jarduerari buruz, edo prestakuntza-ekintzaren inguruko proiektu bat. Horien helburua izango da ikasitakoa ikasgelan edo ikastetxean praktikan jartzea.

3. ANTOLAKETA, TEKNIKA ETA GIZA BALIABIDEAK

3.1. Esleipendunek nahitaez izan beharko dituzte kontratatutako ikastaroak emateko behar diren giza baliabide eta baliabide tekniko eta material guztiak. Enpresak beharrezko azpiegitura eta ekipo materialak bermatuko ditu, eman behar diren zerbitzu guztiak eman ahal izateko.

3.2. Ikastaro bakoitzeko arduradun bat egongo da, zuzendaritza eta koordinazio lanak bere gain hartuko dituena. Bera izango da ikastaroaren arduraduna, bai intendentzia-arloan, bai pedagogiaren esparruan.

4. IKASTAROEN HARTZAILEAK

4.1. Irakasleak izango dira ikastaroen hartzaileak; zehazki, unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko zein itunpekoetan jardunean dauden irakasleak, eta, konkretuki:

a) Ikastetxe publikoetako irakasleak eta Hezkuntza Bereziko hezitzaileak
b) Itunpeko ikastetxe pribatuetako langileak, Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaileak eta 0-3 urte bitartekoen irakasleak eta hezitzaileak.
c) Hezkuntza Saileko irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuetako eta Hezkuntza Ikuskaritzako langileak.
d) Haurreskolak partzuergoko hezitzaileak.

5. PRESTAKUNTZA-ESKAINTZAREN ANTOLAKETA

5.1. Kontratuko prestakuntza-eskaintzaren antolaketa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari dagokio oso-osorik. Prestakuntza-eskaintzaren antolaketaren barruan sartzen dira deialdiak egitea, matrikulatzeko epeak jartzea, onartuen zerrenda egitea, jardueren jarraipena egitea eta kasuan kasuko egiaztagiriak ematea.

5.2. Prestakuntza-eskaintzaren antolaketa Hezkuntzako sailburuaren Agindu batean jasoko da, orain arte bezala. Agindu horretan deialdia egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasleek IRALEren prestakuntza-eskaintzan parte har dezaten. Deialdian eskabidea egiteko prozedura ezarriko da, baita eskakizunak eta parte hartuko dutenak aukeratzeko prozedura ere.

5.3. Enpresa edo entitate esleipendunek men egin beharko diote Hezkuntza Sailak ezarritako prestakuntza-eskaintzaren antolaketari. Beraz, hertsiki bete beharko dituzte sailak ezarritako irizpideak antolaketa-irizpideei eta prestakuntza-jardueren kudeaketari dagokienez.

6. IKASTAROEN EZAUGARRIAK

6.1. **I. ERANSKINEKO fitxetan** daude jasota Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak prestakuntza-ekintza bakoitzerako ezarritako ezaugarriak eta gauzatzeko baldintzak.

- Lotea
- Izena
- Ikastaroaren kodea
- Ordu-kopurua
- Plaza-kopurua

- Hizkuntza
- Lurraldea
- Noiz eman
- Programa
    - Helburuak
    - Edukiak
    - Metodologia
    - Ebaluazioa eta eragina

Informazio hori abiapuntua da, eskatzen diren gutxieneko baldintzak. Bestalde, ikastaroetan sortzen den talde bakoitza gutxienez 8 pertsona eta gehienez 20 pertsonaz osatuko dira.

7. ENPRESA EDO ENTITATE ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Enpresa edo entitate esleipendunek betebehar hauek izango dituzte:

7.1. Hezkuntza Sailari eskatzen zaizkien datu eta dokumentu guztiak ematea prestakuntza-ekintza bakoitza gauzatzeak eskatzen duen kudeaketa egin ahal izateko. Orobat, parte hartzen duten irakasleen jarraipena eta ebaluazioa egiteko beharrezko diren zenbait zeregin ere izango dituzte. Zehazki:

a) Onartutako pertsonen asistentzia-kontrola egitea eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren Euskara eta Eleaniztasunerako Zerbitzuari parte-hartzaileen bajak jakinaraztea, ordezkoen zerrenda kudeatu ahal izateko.

b) Parte hartzen duten irakasleek gutxienez ikastaroaren orduen % 80 bete beharko dute, eta entitateak ezin izango du ikastaroa gainditu izana egiaztatzen duen ziurtagiririk eman baldin eta gutxieneko hori betetzen ez badute edota ikasturte bakoitzean aurreikusitako ariketa, proiektua edo txostena aurkezten ez badute, salbu eta akats edo omisioren bat egon bada. Kasu horietan, agiri bidez justifikatu beharko da.

7.2. Jarduera bukatu eta hilabeteko epean beranduenez, entitateak Euskara eta Eleaniztasunerako Zerbitzuaren esku jarriko du kontratatutako jarduera bakoitzari dagokion dokumentazio hau:

a) Jardueraren garapenaren inguruko akta, zehaztasun hauekin:
    - Jardueraren garapenaren inguruko balorazio orokorra.
    - Ikastaroan parte hartu duten irakasleen zerrenda, berariaz adierazita bertaratze-portzentajea, parte-hartzea eta aprobetxamendua.

b) Hezkuntza Sailak eskatuz gero, ikastaroan erabilitako material didaktikoaren kopia digital bat: apunteak edo material inprimatua, softwarea, aurkezpenak, ariketak eta jarduerak.

c) fitxa bat ikastaroan parte hartu duen pertsona bakoitzeko. Bertan jasoko dira parte-hartzaile bakoitzak burutu duen jarduera praktikoaren oinarrizko ezaugarriak, ikastaroaren ezaugarrietan ezarritakoaren arabera.

7.3. Entitateek ebaluaziorako ezarritako barne mekanismoak gorabehera, Hezkuntza Sailak aukera izango du proiektuak ebaluatzeko, ezarritako helburuak zenbateraino bete diren egiaztatzeko.

7.4. Goian aipatutako funtzio eta zeregin guztiak euskaraz egingo direla bermatuko da, eta kontratuaren esparruan egindako materialak ere euskaraz egongo dira.

7.5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan indarrean dagoen legeria beteko da.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

8.1. Enpresa edo entitateek eskaintza bat aurkeztu beharko dute lizitatutako lote bakoitzeko, berariazko administrazio-baldintzen pleguan ezarritako irizpideen arabera baloratua izan dadin. Lote bakoitzerako eskaintza teknikoa egiteko agiri hauek aurkeztu behar dira:

1.- Formulario bat beteta, lortu nahi den lote bakoitzeko. Beraz, **II. ERANSKINEAN** berariaz argitaratutako formulario normalizatuan datu hauek bete behar dira ikastaro bakoitzeko:

a) Ikastaroaren lotea, izena eta kodea, fitxan ezarritakoaren arabera. Datu hauek ikastaroa identifikatzeko baino ez dira.
b) Ikastaroa emango duen entitatea.
c) Ikastaroaren arduradunaren izen-abizenak eta kontaktu-datuak.
d) Ikastaroa emango duten pertsonen izen-abizenak.

2.- Ikastaro bakoitza emango duten irakasleen curriculuma. Ikastaro-emaile bakoitzeko dokumentu bat, gehienez ere orrialde batekoa, DIN A4 formatuan eta Arial 11 letra motan.

9. KONTRATUA EGIKARITZEAREN INGURUKO BESTELAKO ALDERDI BATZUK

9.1. Enpresa edo entitate esleipendun bakoitzak pertsona bat izendatuko du kontratua nola gauzatzen ari den gainbegiratzeko eta horren jarraipena egiteko. Pertsona hori izango da enpresa edo entitate esleipendunak Hezkuntza Sailarekin izango duen solaskide bakarra.

9.2. Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak irakasleak prestakuntza-eskaintzan matrikulatzeko ateratzen duen deialdiaren ondoren, ikastaroren batean ikastaroa hasteko egunean zortzi parte-hartzaile baino gutxiago baldin badaude, ikastaro hori bertan behera utziko da. Ikastaro bat bertan behera uzteak berekin ekarriko du lote horretan ordaindu beharreko prezioa jaistea; hain zuzen ere, bertan behera utzitako ikastaroaren orduen proportzioan jaitsiko da prezioa. Hala ere, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak aukera izango du prestakuntza jarduera bat egiteko, nahiz eta ez iritsi gutxieneko plaza kopurura, baldin eta tartean garrantzizko interes publikoak edo baldintza bereziak badaude eta, betiere, behar bezala arrazoituta.

Gasteizen, 2024ko sinaduraren datan.

AMAIA AGIRRE PINEDO
Fecha: 2024.03.06 15:24:27 +01'00'

Amaia Agirre Pinedo

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria